

NORANTZA

OLATZ ALTUNA
 SEI ELKARTEKO PARTAIDEA

«Euskararen normalkuntzan laguntzeko tresna da Begira»

Euskararen bilakaeraren prospekzioak egiteko balio duen «Begira» tresna Euskal Soziolinguistika Institutua Sotzenek ekoiztu berri du, eta Xabier Isasi arduratu da lantzeaz.

AMAIA MUNDINANO

Sortu berria den tresna horretaz hitz egiteko, Olatz Altuna SEI elkarte partaidea izan gara solasean eta hark euskararen berreskurapenerako tresna interesgarria dela azpimarratu du.

Zer da «Begira» eta zergatik sortu da?

«Begira» euskararen bilakaeran prospekzioak egiteko tresna da, ezagutzaren eta erabileraren bilakaerak ezagutzeko balio duen tresna. Alegia, Sistema honek nor bere herria berreskalduntzeko beharrezkoa duen erritimoa ezagutzeko aukera ematen du eta hau oso baliagarria da plangintzak edota egitasmoak diseinatzeke. Beraz, euskararen normalkuntzan eragile diren errentat oso elementu interesgarria dela deritzogu. Izan ere, halako tresnak non gauden zehazteko eta etorkizuneara iritsi gaitzeko ezagutzeko baliagarriak dira. Euskararen kasuan gizarte atxikimendua oso garrantzitsua da eta tresna honek, nolabait, berreskurapen horretan lagundu nahi du.

Tresna horrekin bi motako kalkulak egiten dira. Zertan datza bakoitza?

Batetik, biztanleria eta euskararen ezagutzaren kopuruak kalkulatu dira eta, bestetik, erabilera. Biztanleriaren eta eskaldunen kopuruen chunekoak kalkulatzeko, hazkuntza geometrikoa erabiltzen da. Ahozko erabileraren prospekzioari dagokionez, be-

riz, Txillardegik sortutako eredu matematikoa erabiltzen da, fidagarritasuna aski frogatu duen eredu, alegia. Bestalde, programak hiru kalkulu orri dituela esan beharra dago. Excel 97an eraturik: ezagutzarena, erabilera eta hori guztia jasozten duen irudi grafikoen orrialde, hain zuzen ere.

Edozeinek erabil edota interpretatu ditzake datu horiek?

Bai, erabilpena oso erraza da. Gure ustez, euskararen normalkuntzan eragile diren errentat sortu bada ere, hau da, teknizierentzat eta abar, azken batean edozeinek erabil

dezake. Programak behar dituen datuak behar bezala sartuta, berak egiten du automatikoki eragiketa.

Lortzen diren datuak fidagarriak al dira?

Guk egin ditugun probetan lortutako emaitzek tresna hau fidagarria dela erakutsi dute. Dena den, kontuan izan behar da estimazio zorroztzagoa izaten dela zenbaki handietan ibiltzen bada, hau da, programak erabiltzen duen oinarri matematikoa dela eta, kalkulatu estatistikoa zorroztzagoa da zenbaki handietan txikietan baino, eta, beraz, datu fidagarriagoak ageri dira herri handi eta hirietan herri txikietan baino. Bestalde, prospekzioa egiteko, bi urtetako datuak erabiltzen dira, eta horien arteko tartea zenbat eta handiagoa izan, errore maila handiagoa da. Beraz, bi datu horiek kontuan izan behar dira, eta, gauzak ondo eginez gero, datuak oso fidagarriak direla esan beharra dago.

Zer-nolako ekarpena egiten die tresna horrek euskalgintzari eta, oro har, euskal gizarteari?

Tresna honek egiten duen ekarpenari interesgarria deritzogu. Gure ustez, halako tresnen beharra badago eta, zentzu horretan, honetan SEI elkartek bere ekarpena egin nahi du. Euskararen berreskurapenean izugarriko lana egiten da euskal gizartearen, baina, askotan, lan honetan intuizioa baino ez da erabiltzen eta, honek bazueta balio badu ere, halako tresna teknikoek zer-nolako plangintzak eta egitasmoak egin behar diren asmatzen laguntzen dutela zalantzarik ez dago.



Karlos Corbellá

ZIRTOKA

Txillardegik

Zergatik?

Ezinezgona. Ezinezgona nabarmen borrokkideen artean.

Jendeak, jende fin askok, ez omen du ulertzen. Hauxe da han eta hemen errepikatzen den leloa.

Urrats taktiko batzuek helburu estrategikoak izkutu eta ukatuko balituzte bezala.

Hots, espainiarrek ez dute horrelako nahaspilarik. Aznarren jokabideak uertu egiten dira Espainian. Helburu estrategiko nagusia Euskal Herria errotik erautzea da, nabarmenki. Pausuek erautzea horretan laguntzen dute beti.

Eta mementuko gakoak ongi jabeturik, baturik jokatzen dute PSOE eta PPAk; espainiar «ezkerrek» eta «eskuinak», omen.

Zergatik ez ote dugu gauza bera geure alorrean ikusten?

Zergatik dago gure artean «ezkertasuna» azpimarratzeko jorari hori?

Zergatik, berebat, «gobernagarritasuna» eta «ordunua» beste muturrean, balio erabakigarri bihurtu behar hori?

Oraindik ere, eta gure herria herri gisa guzuz ukatuta dagoen honetan, ezkerreko abertzaleek eta eskuineko abertzaleek elkar ukatzen dute sutsuki, eta ez dute inolaz ere eta ezertarako batera jokatu nahi.

Eta galdera ziplo dator: zergatik elkar daitzeko espainiarrok oro «cuestiones de Estado» delakoetan (estoniarrak, ferotaerak eta koxitxinatarrak bezala); eta gu, aldi, Aznar eta Chirac aurrean ditugularik, elkartu ezinean ari?

Galdera honek erantzuna merezi bide luke.

Aitzindariak

MADALENA JAUREGIBERRI
1 8 8 4 1 9 7 7



ZEHARKATURIK GAZTE DENBORAN ITSASO ARGENTINARI
JOAITEKO, SORTU ZAIO DESTERRIUN HERRIAKIN OMO
DU SOKRATUA...



ARO LOTZ HORIETARIK LONDA, TA GABE 9069 ETZ
0870Z EUSKAL MINTZAJEAREN ARGIZALE IZAN DA
BIZI OSOAN...



ESPAINIAR GERRA ZIBIL URTE BELTZETAN EZ DUTU
KONTATU URKOTSAK ETA INDARRAK FAZISMOAREN
ITSUSKERIEN SALATZKO PARISEN ETA BILBAON.



EMAZTE GAITZ ETZ AMIRAGARRIA; BEGIRALEAK
MUGIMENTUA ABIATU DU PLAZETAN ETA ESKOLETAN.

